



DEBAKO UDALA

2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 8
EGUNA: 2020/07/23
ORDUA: 19:03
TOKIA: Pleno aretoa.

Nº: 8
DÍA: 23/07/2020
HORA: 19:03
LUGAR: Salón de plenos.

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, alkatea

EH Bildu udal taldea
Itziar Irizar (7.puntuan agertzen da)
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Debarren Ahotsa udal taldea
Pedro Bengoetxea
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

EAJ-PNV udal taldea
Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez

JUSTIFIKATUTAKO **EZ**
BERTARATUAK:

Debarren Ahotsa udal taldea
Ane Miren Egidazu

EAJ-PNV udal taldea
Miren Esnal

Idazkaria: Jorge González Endemaño

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, alcalde

Grupo municipal EH Bildu
Itziar Irizar (Entra en el punto 7)
Antxon Etxeberria
Nerea Arrizabalaga
Aritz Larrañaga
Antxoka Elorza

Grupo municipal Debarren Ahotsa
Pedro Bengoetxea
Enrique Salgado
Isidor Lamariano

Grupo municipal EAJ-PNV
Iñigo Cambronero
Eneritz Gómez

NO ASISTENTES JUSTIFICADOS:

Grupo municipal Debarren Ahotsa
Ane Miren Egidazu

Grupo municipal EAJ-PNV
Miren Esnal

Secretario: Jorge González Endemaño



2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

EZ OHIKO BILKURA HONETAN ESKARI ETA GALDEREN PUNTUA SARTZEA

Nahiz eta ez-ohiko bilkura izan, eskari eta galderen puntua sartzeko eskaera izan dela dio Alkateak. Azken puntu bezala tratatuko dela dio.

Osoko bilkurak eskari-galderen puntua sartzea bozkatzeko du eta aho batez onartzen da.

1. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA, COVID-19 KUTSA- TZEKO EDO HEDATZEKO PREBEN- TZIO NEURRI GISA.

Osoko bilkura atek itxita eta maskarekin egitea proposatzen du alkateak.

Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da Osoko Bilkura atek itxita eta maskarekin egitea.

2. AURREKO BILKUREI DAGOZ- KIEN AKTEN ZIRRIBORROAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak jakinarazi du bi akta daudela onartzeke: aurreko ohiko osoko bilkurakoa eta hauteskunde zozketari dagokiona.

Bozkatu ondoren, aho batez onartu dira aurreko bilkuretako aktak.

AGREGAR EN ESTE PLENO, EL PUNTO DE RUEGOS Y PREGUNTAS

El alcalde informa que aunque sea un pleno extraordinario, se ha recibido la petición de insertar el punto de ruegos y preguntas. Se trataría como el último punto.

El pleno vota insertar el punto de ruegos y preguntas y se aprueba por unanimidad.

1. APROBAR, SI PROCEDE, CELEBRAR ESTA SESIÓN DE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19.

El alcalde propone celebrar el Pleno a puerta cerrada y con mascarilla.

Tras someterse a votación se aprueba por unanimidad celebrar el Pleno a puerta cerrada y con mascarilla.

2. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES.

El alcalde informa que hay dos actas anteriores por aprobar, la del pleno ordinario anterior y la del correspondiente al pleno del sorteo de elecciones.

Tras someterse a votación se aprueban por unanimidad las actas de las sesiones anteriores.



2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

3. ALKATETZA DEKRETUAK.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira ondorengoaz:

3. DECRETOS DE ALCALDÍA.

Los asistentes quedan informados de las siguientes resoluciones:

154	2020/05/22	Lorea tabernari terraza jartzeko baimena ematea.	2020PMVE0003	Barne Erregimena
155	2020/05/22	Haurreskolako beirak aldatzea.	2019UOVA0010	Hirigintza
156	2020/05/25	Hilerrri berriaren ordenantzaren prozedurari hasiera.	2020SCCO0008	Barne Erregimena
157	2020/05/25	Aldats frontoia irekitzea.		
158	2020/05/25	Obra txikia. Endoia Auzoko Torre Txiki baserri inguruko zolata konpontzeko baimena ematea.	2020UOME0030	Hirigintza
159	2020/05/25	Obra txikia. Lersundi 26, 1go ezkerreko etxebizitzako bainugela eraberritzeko baimena ematea.	2020UOME0042	Hirigintza
160	2020/05/25	Hilerrri berriko ordenantzari ekarpenak egiteko biztanleei eta eragileei entzunaldia ematea.	2020SCCO0008	Hirigintza
161	2020/05/26	OTA kontratazioa (Amaia. A)		Barne Erregimena
162	2020/05/26	OTA kontratazioa (Amaia. A)		Barne Erregimena
163	2020/05/26	Itziarko Zabalsoro frontoia eta Lasturko frontoia, rokodromoa eta bolatokia irekitzea		
164	2020/05/27	Obra txikia. Itziarko 12-038 lursailean bidea zabaltzeko baimena ematea.	2020UOME0036	Hirigintza
165	2020/05/27	Obra txikia. JM Ostolaza kalea 14, 2. solairuko etxebizitza eraberritzeko baimena ematea.	2020UOME0043	Hirigintza
166	2020/05/27	Obra txikia. Astillero kalea 14, 3.C etxebizitzako bainuontzia dutxagatik ordezkatzeko baimena ematea.	2020UOME0044	Hirigintza



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

167	2020/05/27	Obra txikia. Hondartza kalea 16, 1go atzekaldeko etxebizitza eraberritzeko baimena ematea.	2020UOME0047	Hirigintza
168	2020/05/27	Obra txikia. Hondartza kalea 6, 6.C etxebizitzako komuna eraberritzeko baimena ematea.	2020UOME0050	Hirigintza
169	2020/05/26	Lanpostuen zerrendaren aldaketaren proposamena	2020SEPO0001	Barne Erregimena
170	2020/05/26	Hondartzako pasealekuko izozki-etxolak ustiatzeko kontratuko kanona murriztea - 2.etxola	2014SCOU0001	Barne Erregimena
171	2020/05/26	Hondartzako pasealekuko izozki-etxolak ustiatzeko kontratuko kanona murriztea - 3.etxola	2014SCOU0001	Barne Erregimena
172	2020/05/26	Hondartzako pasealekuko izozki-etxolak ustiatzeko kontratuko kanona murriztea - 4.etxola	2014SCOU0001	Barne Erregimena
173	2020/05/27	Hondartzako kabinetako ur beroko instalakuntzaren legionellaren aurkako tratamendua-FERVIL	2020SCOU0016	Ingurumena
174	2020/05/28	Hondartzako kabinetako ur beroko instalakuntzaren mantenua.	2020SCOU0017	Ingurumena
175	2020/05/29	Udal kiroldagiko kiroldagueren fisikoko, administrazioko, komunikazioko eta harrerako zerbitzuen kontratuaren exekuzioaren etenaldiaren amaiera eta zerbitzuaren berrezarpenaren Dekretua	2018SCOU0003	Barne Erregimena
176	2020/06/01	J.U.ri berariazko osagarria ordaintzea		Barne Erregimena
177	2020/0/01	Tokiko Administrazioaren gaitasun nazionalerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2020ko lehiaketan parte hartzea.		Barne Erregimena
178	2020/06/01	Debako hilerria berriro irekitzea		
179	2020/06/01	E.G.ri zakur arriskutsua izateko baimena		
180	2020/06/02	Ibilgailuen gaineko zergan hobariak onartzea auto hibridoak izategatik		Ogasuna



2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

181	2020/06/02	OHGZren hobaria onartzea familia ugariagatik		Ogasuna
182	2020/06/02	A.M.G.ri GLL ordainketa egitea		Ongizatea
183	2020/06/05	Elorrixako eta Errotaberriko aparkalekuak berriro irekitzea		
184	2020/06/08	Kiroldegia berriro irekitzea		
185	2020/06/08	Errotazar futbol zelaia berriro irekitzea		
186	2020/06/08	Gazte Lokalak berriro irekitzea		
187	2020/06/09	Lersundi 35eko lokalean obrak egiteko baimena.	2020UROM0008	Hirigintza
188	2020/06/09	Surf eskola	2019SCOU0053	Ingurumena
190	2020/06/12	Obra txikia. Osio kalea 3, 3Bko etxebizitza eraberritzeko baimena.	2020UOME0020	Hirigintza
191	2020/06/15	Obra txikia. Portu kalea 4, 3.B etxebizitza eraberritzeko	2020UOME0048	Hirigintza
192	2020/06/15	Obra baimena ukatzea. Indo baserria	2019UROM0020	Hirigintza
193	2020/06/17	Obra txikia. Mogel kalea 1eko garajetako zoladura konpontzeko baimena ematea.	2020UOME0053	Hirigintza
194	2020/06/18	Uda garairako udaltzain laguntzaile bat kontratatzea 2020/06/23tik-2020/12/22ra.		Barne Erregimena
195	2020/06/19	Gizarte larrialdietarako laguntzak onartzea eta ordaintzea.		Ongizatea
196	2020/06/19	Etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea.		Ongizatea
197	2020/06/19	Udaleko kamioiaren isuna.		Barne Erregimena
198	2020/06/22	Gazte lokalen ordenantzaren prozedurari hasiera ematea.	2020SCCO0013	Barne Erregimena
199	2020/06/22	Animaliak eduki eta babesteko ordenantzaren aldaketa prozedurari hasiera ematea.	2020SCCO0012	Barne Erregimena
200	2020/06/22	Udal ordenantzak idatzi eta berritzea, Gure Abokatuak SLUri esleitzea.	2020SCOU0019	Barne Erregimena



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

201	2020/06/22	Uda garairako udaltzain laguntzaile bat kontratatzea 2020/07/01etik-2020/12/31ra.		Barne Erregimena
202	2020/06/23	Ehorzlearen lanpostua ordezkatzeko langilea kontratatzea.		Barne Erregimena
203	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea V.N.L.O.	2020GAES0001	Ongizatea
204	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea R.A.R.F.	2020GAES0002	Ongizatea
205	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea J.I.B.M.	2020GAES0003	Ongizatea
206	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea A.N.M.Z.	2020GAES0004	Ongizatea
207	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea D.F.M.G.	2020GAES0005	Ongizatea
208	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea C.L.U.L.	2020GAES0006	Ongizatea
209	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea E.SM.	2020GAES0007	Ongizatea
210	2020/06/23	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea YC.I.C.	2020GAES0008	Ongizatea
211	2020/06/23	Plusbaliari egindako alegazioari erantzuna.		Ogasuna
212	2020/06/26	Eguneko Zentroko animazio jardueraren kontratuaren aldaketa.	2014SCOU0002	Ongizatea
213	2020/06/26	Hondartza erabiltzeko udalak hartutako neurriak.		Ingurumena
214	2020/06/29	Hilerriko prozedura penalerako abokatuen defentsa izendatu.		
215	2020/06/30	Kamioi gidariaren lanpostua ordezkatzeko langilea kontratatzea.		Barne Erregimena
216	2020/06/30	Lan pilaketagatik, brigadarako operarioaren kontratazioa, 3 hilabeterako.		Barne Erregimena
217	2020/07/01	Larunbat, igande eta jai egunetarako parking zaindariaren kontratazioa.		Barne Erregimena



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

218	2020/07/01	Eguneko Zentroko langileen oporrak ordezkatzeko, langile baten kontratazioa.		Barne Erregimena
219	2020/07/01	S. G. A.ri txakur arriskutsua baimena.		Barne Erregimena
220	2020/07/01	Online kirol jarduerak 2020/03/13tik 2020/05/31ra.		Kirolak
221	2020/07/01	Errotazar futbol zelaiko hesia jartzea.	2020SCOU0020	Kirolak
222	2020/07/02	Ondargain- Esleipedunari errekerimendua.	2017SCOU0002	
223	2020/07/01	GFA dirulaguntza eskaera.		kultura
224	2020/07/06	Obra txikia. Arbiskoa auzoko Goltzibar baserriko teilatua konpontzeko baimena.	2020UOME0006	Hirigintza
225	2020/07/06	Obra txikia. Hondatza kalea 6, 6.C etxebizitzako bainugelako bañera dutxagatik ordezkatzeko baimena.	2020UOME0049	Hirigintza
226	2020/07/06	Obra txikia. Agirretxe kalea 11 eraikineko fatxada birgaitzeko baimena.	2020UOME0051	Hirigintza
227	2020/07/06	Obra txikia. Lersundi kalea 14, 3.B etxebizitza birgaitu eta leihoak aldatzeko baimena.	2020UOME0052	Hirigintza
228	2020/07/06	Obra txikia. Prozesio 19-21-23 lorontziak konpontzeko baimena.	2020UOME0055	Hirigintza
229	2020/07/06	Obra txikia. San Josepe kalea 1. 4. Solairuko ateburua konpontzeko baimena.	2020UOME0056	Hirigintza
230	2020/07/07	OHGZren hobaria aplikatzeko eskaerak familia ugariagatik.	2020INES24-25-26-27	Kontuhartzailletza
231	2020/07/07	Ibilgailuaren gaineko zergaren hobari eskaerak onartzea.	2020INES0022 2020INES0023	Kontuhartzailletza
232	2020/07/07	OHGZ errenergia kentzeko eskaerak.	2020INES0020	Kontuhartzailletza
233	2020/07/07	Erretiro aurreratuarentzako prima eskaera.	2020SELP0002	
234	2020/07/08	Obra txikia. Ifar kalea 9, 3. ezkerreko etxebizitzan horma bat kentzeko baimena.	2020UOME0058	Hirigintza
235	2020/07/08	Lasturko aterpetxea berriro irekitzea.		



2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

236	2020/07/08	Pasarela konpontzeko eskaera.	2018UOVA0006	Hirigintza
237	2020/07/09	COVID-19ak eragindako egoeragatik banakako dirulaguntzak ematea Debako Caritaseri.	2020GAES0009	Ongizatea
238	2020/07/09	Dirubilketako zenbait ordainagiri baliogabetzea.		Kontuhartzailletza
239	2020/07/10	San Roke 7ko gazte lokala ixtea.		
240	2020/07/10	Ipar Surf eskolako jarduera burutzeko beharrezkoak dituen elementuak jartzea.	2020MIDA0004	Ingurumena
241	2020/07/10	Kostasi baimen eskaera (hondartzako terraza).	2020MHON0001	Ingurumena
242	2020/07/10	SPICER AYRA CARDAN, S.A.ri emandako hirigintza-lizentziaren luzapena ematea.	2019UROM0013	Hirigintza

Pedro Bengoetxeak 200. dekretuari buruz, Gure Abokatuak-en kontratazioa nola egin den jakin nahi du.

Idazkariak erantzuten dio alde batetik aholkularitza eta bestetik defentsa juridikoa dela. Lanaren arabera izango da ordainsaria epaitegira jotzen bada. Aritzek jarraitu diren irizpideak argitzen ditu.

Iñigo Cambronerok 169 dekretua argitzea eskatzen du. Ea aurreko bileretan hitz egindakoagatik den.

Alkateak dio hori lotuta doala Bozaramaile batzordean eta Negoziazio mahaian adostutakoari. Prozedura nola izan den argitzen du Alkateak.

Iñigo Cambronerok 241 ebazpenari buruz argibideak eskatzen ditu.

Pedro Bengoetxea, pregunta sobre el decreto 200, cómo se ha realizado la contratación con Gure Abokatuak.

El secretario responde que por una parte está el asesoramiento y por otra la defensa jurídica. Si se llega al juzgado, la remuneración será según la carga de trabajo.

Aritz aclara las directrices que se han seguido.

Iñigo Cambronerero solicita alguna aclaración sobre el decreto 169. Si se refiere a lo hablado en anteriores reuniones.

El alcalde responde que está relacionado con lo acordado en la Junta de portavoces y en la Mesa de negociación. Aclara cómo ha sido el procedimiento.

Iñigo Cambronerero solicita una aclaración sobre el decreto 241.



2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

Alkateak dio hau lotuta dagoela Ondargaineko kontuari.

El alcalde aclara que está relacionado con el tema de Ondargain.

Idazkariak prozedurari buruz argitalpenak ematen ditu. Prozedura administratibo arrunta dela dio.

El secretario da algunas explicaciones sobre el procedimiento. Dice que es un procedimiento administrativo ordinario.

4. UDALBATZARRARI KONTU EMAN 214/2020 ALKATEAREN ERABAKIARI BURUZ. HONEN BIDEZ, GURE ABOKATUAK SLP KONTRATATZEN DA 536/2019 ZENBAKIDUN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN UDALAREN INTERESAK DEFENDATZEKO.

4. DAR CUENTA DE LA RESOLUCIÓN DEL ALCALDE 214/2020 POR LA QUE SE CONTRATA A GURE ABOKATUAK SLP PARA LA DEFENSA DE LOS INTERESES DEL AYUNTAMIENTO EN LAS DILIGENCIAS PREVIAS Nº 536/2019.

Alkateak erabakiaren helburua eta aurrekariak azaltzen ditu. Udala defendatzea da helburua.

El alcalde explica el objetivo y los antecedentes de la resolución. El objetivo es defender al Ayuntamiento.

Pedrok dio aurrekoan hitz egindakoaren arabera, udalak ez zituela langileak defendatuko.

Pedro dice que, según lo hablado en la reunión anterior, el ayuntamiento no va a defender a los trabajadores.

Idazkariak esaten du udalak ordainduko duela politiko eta langileen defentsa. Horrela asumitu zen.

El secretario dice que el ayuntamiento pagará la defensa de los políticos y de los trabajadores. Así se asumió.

Pedrok ezetz dio.

Pedro lo niega.

Idazkariak dio gaizki ulertuko zuela.

El secretario dice que pudo haberlo entendido mal.

Pedrok dio beraiek ez zutela horrela ulertu.

Pedro dice que ellos no lo entendieron así.

5. EMERGENTZIA EGOERAGATIK BANAKAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA (AD203-210 eta AD237).

5. DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DEL ALCALDE SOBRE LAS AYUDAS DE EMERGENCIA INDIVIDUALES CONCEDIDAS (DECRETOS 203-210 Y DECRETO 237).



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

Aritz Larrañagak dio Gizarte Zerbitzuetatik erabaki zela beharra zuten familiei laguntzak ematea. Nola izan zen prozedura azaltzen du.

Aritz Larrañaga dice que desde Servicios Sociales se decidió dar ayudas a las familias necesitadas. Explica cómo ha sido el procedimiento.

6. DIRU-BILTZAILEAREN LANPOSTUA SORTZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak gai honi buruz hartutako erabakiak eta prozedura azaltzen ditu.

6. APROBAR, SI PROCEDE, LA CREACIÓN DEL PUESTO DE RECAUDADOR/A.

El alcalde expone las decisiones tomadas y el procedimiento seguido en este caso.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

7. 2019KO AURREKONTU OROKORRAREN KITAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Itziar Irizarrek dio Ogasun batzordean landu zela.

7. APROBAR, SI PROCEDE, LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL 2019.

Itziar Irizar dice que se trabajó en la Comisión de Hacienda.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

8. 2020KO AURREKONTURAKO MAILEGU BAT KONTRATATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Itziar Irizarrek dio 552.000€ko mailegua hartzea erabaki dela ogasun batzordean, Kutxabank-eri eskatuko zaio.

8. APROBAR, SI PROCEDE, LA CONTRATACIÓN DE UN PRÉSTAMO PARA EL PRESUPUESTO 2020.

Itziar Irizar explica que en la Comisión de Hacienda se ha decidido contratar un préstamo de 552.000€. Se contratará con Kutxabank.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

9. DEBAKO MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO BARNE ARAUDIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

9. APROBAR, SI PROCEDE, EL REGLAMENTO INTERNO DE LA ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA DE DEBA.



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

Itziar Irizarrek dio gai hau hilabetetan landu dela eta azken patronatuaren bileran adostu da. Datorren ikasturterako jarriko da martxan.

Itziar Irizar explica que este tema se trató durante meses y se acordó en la última reunión del Patronato. Se pondrá en marcha para el curso que viene.

Pedro ados agertzen da baina araudia idazterakoan gazteleraz ere idaztea eskatzen du.

Pedro se muestra de acuerdo, pero pide que al redactar la norma se haga también en castellano.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

10. BERDINTASUN PLANA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

10. APROBAR, SI PROCEDE, EL PLAN DE IGUALDAD.

Itziar Irizarrek dio berdintasun batzordean landu zela batzordekideekin, bilera ireki bat egin zen Agirre jauregian herritarrekin eta martxoan 9an ordezkari politikoak eta Baitekeko teknikariek. Osoko bilkuran onartu eta martxan jartzea falta da.

Itziar Irizar expone que se trató en la Comisión de Igualdad con los participantes, se hizo una reunión abierta en el Palacio Aguirre con los ciudadanos y el 9 de marzo se hizo una reunión con los representantes políticos y técnicos de Baiteke. Falta aprobarlo en el pleno y ponerlo en marcha.

Pedro Bengoetxea ados agertzen da. Aspalditik eskatzen zutena da. Gazteleraz idaztea ere eskatzen du.

Pedro Bengoetxea se muestra de acuerdo. Es lo que pedían desde hace tiempo. Pide que también se redacte en castellano.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

11. EUDELEK PROPOSATUTAKO LANGILEEN SOLDATA IGOERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

11. APROBAR, SI PROCEDE, EL INCREMENTO SALARIAL DE LOS TRABAJADORES PROPUESTO POR EUDEL.

Alkateak dio adostutako proposamen bat dela. Ogasun Batzordean hitz egin zen.

El alcalde dice que se trata de una propuesta acordada. Se trató en la Comisión de Hacienda.



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

12. ABENDUKO OHIKO BILKURA ABENDUAREN 17RA AURRERATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

12. APROBAR, SI PROCEDE, ADELANTAR EL PLENO ORDINARIO DE DICIEMBRE AL DÍA 17 DE DICIEMBRE.

Osoko bilkurak bozkatu eta aho batez onartzen da.

El Pleno procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

13. ESKARIAK ETA GALDERAK

13. RUEGOS Y PREGUNTAS

- a) Alkateak berri bat ematen du: Itziarko Auzo Udaleko aldaketarako errekerimendua gaur bertan osatu da eta erantzun zaio Aldundiari. Luzatu egin da baina eginda dago. Orain Aldundiaren erantzunaren zain egongo gara eta berri emango dugu.

- a) El alcalde da una noticia: El requerimiento para la modificación de la Entidad Local Menor de Itziar se ha completado hoy mismo y se ha respondido a la Diputación. Se ha retrasado pero ya está hecho. Ahora esperamos a la contestación de la Diputación e informaremos.

Pedro Bengoetxeak bere poza agertzen du.

Pedro Bengoetxea muestra su satisfacción.

Iñigo Cambronerok ere ondo deritzo.

A Iñigo Cambronero también le parece bien.

- b) Pedro Bengoetxeak zubiaren gaia nola dagoen galdetzen du.

- b) Pedro Bengoetxea pregunta cómo está el tema del puente.

Alkateak dio berririk ez dagoela. Koronabirusaren gaiak eta honen ondorioz izan diren aurrekontu murrizketak eragina izan dute. Kreditu modifikazioak lantzen ari da Aldundia. Asmoa zen abendurako hastea eta data horiek betetzeko esperantza dugu. Bitartean zein aukera dauden aztertzen ari gara eta bizilagunekin eta Mutrikuko udalarekin harremana mantentzen ari

El alcalde responde que no hay novedades. El tema del coronavirus y los recortes que ha acarreado han tenido consecuencias. La Diputación está trabajando en la modificación de los créditos. Se esperaba empezar en diciembre y aún mantienen la esperanza de conservar esas fechas. Mientras, están analizando las opciones y manteniendo la relación con los



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

gara. Aurrera pausorik badago, jakinaraziko da.

vecinos y el ayuntamiento de Mutriku. Si hay avances, se harán saber.

Iñigo Cambronerok, proiektua ea lizitazio fasean dagoen galdetzen du.

Iñigo Cambronero pregunta si el proyecto está en estado de licitación.

Alkateak baietz erantzuten du. Dagoeneko proiektua onartuta dagoela dio.

El alcalde responde afirmativamente. Dice que el proyecto ya está aprobado.

c) Pedro Bengoetxeak jaiei buruz galdetzen du, zein jarrera hartuko den. Badakite zein den hartuko den jarrera, baina jendearen aurrean nola azalduko den galdetzen du.

c) Pedro Bengoetxea pregunta sobre las fiestas. Ya saben qué postura se tomará pero quiere saber cómo se le expondrá a la gente.

d) Aritz Larrañagak dio batzordean hitz egin zen bezala, jaietan ez dela ezer egingo. Printzipioz asmoa zen herritarrei ahalik eta azkarren komunikatzea eta arduraz joka eskatzea. Horretan ari dira urrats batzuk ematen ea nola egin ostalariekin harremanetan. Kultura batzordetik idatzi bat egitea ere aipatu zen, herriko kultur eragileek ere arduraz jokatzeko mezua zabaldu dezaten. Astelehenean egin genuen batzordean horretan gelditu ziren.

d) Aritz Larrañaga explica, que tal y como se habló en la comisión, no se realizará ninguna actividad festiva. En principio, la intención era comunicárselo a los ciudadanos lo más pronto posible y pedirles que actuaran con responsabilidad. Están dando pasos en ese sentido y en cómo hacerlo en conjunto con los hosteleros. También se habló de realizar un escrito desde la Comisión de Cultura para que los agentes culturales de Deba también expandieran el mensaje para que se actúe con responsabilidad. Así se acordó en la comisión del lunes.

Alkateak dio, ikusita beste herrietan gertatutakoa, pentsatzen dutela sentsibilizazio kontu bat dela, herri batzuetan ondo funtzionatu du eta besteetan ez hain ondo. Komunikabide ofizialetatik egin da. Azkenean alor guztiei ikutzen dien gaia da eta erantzuna ere horrela izan behar da, bakoitza bere eremuan ahal den

El alcalde menciona, que visto lo ocurrido en otros municipios, piensan que es una cuestión de sensibilización. En algunos pueblos ha funcionado bien, y en otros no tanto. Se ha hecho desde los medios de comunicación oficiales. Al fin y al cabo, es un tema que afecta a todos los ámbitos y la respuesta tiene que ser también global. Cada uno debe



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIKOA 2020/07/23

gehiena mezua zabaltzea. Arduraz eta zentzuz jokatu behar dela. Mezu bateratu bat eman nahi dugu, denon artean adostuta.

expandir el mensaje en su ámbito tanto como pueda. Hay que actuar con responsabilidad y sentido común. Queremos dar un mensaje unido, acordado entre todos.

Pedrok bere taldearen laguntza eskaintzen du.

Pedro ofrece la ayuda de su grupo.

Iñigo Cambronerok dio guztiak inplikatu behar garela: politikoak, elkarteak, ostalaritza... eta denok arduraz jokatzeko mezua denei banatu behar zaiela.

Iñigo Cambronero dice que debemos implicarnos todos: políticos, asociaciones, hostelería... y todos debemos dar un mensaje de que hay que actuar con responsabilidad.

- e) Isidor Lamarianok dio gaurko prentsako albiste baten ETSk zubiak konpondu nahi dituela diola eta udaletxeko terreno batzuei eragingo diela. Terreno horiengatik galdetzen du.

- e) Isidor Lamariano dice que, en la prensa de hoy, en una noticia se menciona que ETS quiere arreglar algunos puentes y que algunos terrenos del ayuntamiento serán afectados. Pregunta sobre tales terrenos.

Aritz Larrañagak argitzen du Amillagako lurrei buruz hitz egiten dela.

Aritz Larrañaga aclara que se habla sobre los terrenos de Amillaga.

Isidorrek dio jendearen pasabidea babestu beharko dela edo berri bat egin, behin behinekoa.

Isidor dice que habrá que proteger el paso de peatones o instalar uno provisional.

- f) Isidor Lamarianok galdetzen du ea bilatu den San Rokeko ur depositua jartzeko aukeraren bat, eta gai hori nola dagoen.

- f) Isidor Lamariano pregunta si se ha buscado alguna solución para el depósito de agua de San Roke, y cómo está ese tema.

Alkateak erantzuten du bera bildu zela Eusko Jaurlaritzako ondare arduradunarekin eta oraingoz ezin dela depositua berritu Santiagoko Bidean dagoelako. Hala ere, Jaurlaritzakoak prest agertu ziren arauan moldaketa bat egiteko. Moldaketa horrek denbora emango du. Horrez gain, zailtasun

El alcalde le contesta que se reunió con el responsable de patrimonio del Gobierno Vasco y que por el momento no se puede renovar el depósito porque está en el Camino de Santiago. Así y todo, el Gobierno Vasco se mostró dispuesto a realizar una modificación en la



2020SPLE0008

8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

teknikoak ere badaude. Gaur egun ezin bada ere, aurrerantzean konpondu ahalko da arazoa.

normativa. Esa modificación llevará tiempo. Aparte de eso hay también dificultades técnicas. Aunque hoy en día no se puede, más adelante se podrá solucionar el problema.

- g) Isidor Lamarianok dio joan den urtean eskaera bat egin zela Aldundiari Artzabalko bidea Artzabal bukatu arte luzatzeko.

- g) Isidor Lamariano dice que el año pasado se realizó una solicitud a la Diputación para que se ampliara el camino de Artzabal hasta donde finaliza Artzabal.

Alkateak dio hori ere behin baino gehiagotan landu dela hirigintza batzordean eta errepidetako arduradunarekin ere bai. Beraien esku dago eta beti atzera bota dute, kostu hori ez dutela bere gain hartuko. Alkateak esan zien aurreko legegintzaldian akordio batera iritsi zirela udalarekin eta betetzeko akordioa. Gu prest ginen hainbat kostu gure gain hartzeko: argiteria etab...

El alcalde dice que ese tema se ha tratado más de una vez en la comisión de urbanismo y también con el responsable de carreteras. Está en sus manos y siempre lo han rechazado, dicen que no van a asumir ese coste. El alcalde les dijo que en la legislatura anterior llegaron a un acuerdo con el ayuntamiento y que lo cumplan. Nosotros estábamos dispuestos a asumir algunos costes, luz...

- h) Iñigo Cambronerok komunikazio kontratuari buruzko eskaera bat egiten du: Abuztuan berritu behar denez, eskatu du ea modu publiko eta gardenago batean egin daitekeen, enpresetarako sarbidea berma dezagun. Gardentasun hori indartzeko, web-orriak, komunikazioak eta abar erabiltzeko politiken eskuliburua egitea eskatzen du.

- h) Iñigo Cambronero hace una petición sobre el contrato de comunicación. Ya que hay que renovarlo en agosto, pide si se puede hacer de una manera más pública y transparente para que garanticemos el acceso a las empresas. Para reforzar esa transparencia pide elaborar un manual de políticas de uso de páginas web, comunicaciones, etc...

Alkateak dio hortan daudela, txosten bat eskatu da horri buruz eta argitasunaren alde lehenak daude nahiz eta zailtasunak izan inoiz. Zalantzarik gabe epe laburrean kontratazioa argituta egongo da.

El alcalde dice que están en ello, que se ha pedido un informe sobre el tema y que son los primeros que están por aclararlo, aunque hayan tenido problemas. Sin duda en breve la contratación estará aclarada.



DEBAKO UDALA

2020SPLE0008
8.Bilera: EZOHIOA 2020/07/23

Horrenbestez, 19:32etan amaitzen da
Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar, finaliza el
Pleno a las a las 19:32.

Jorge González Endemaño
Idazkaria / Secretario



Gilen Garcia Boyra
Alkatea / Alcalde

